

Herritarrekin adostutako trantsizio energetiko baten aldeko mozioa

Energia oinarrizko baliabide bat da, eta egungo kontsumo energetikoa, nagusiki, erregai fosiletan oinarritzen da, berotegi efektuko gasak eragiten dituzten eta agortze bidean dauden lehengaietan, hain zuzen. Horregatik, beharrezkoa da, energiaren deskarbonizazioarekin batera, energia berriztagarriak eta garbiak erabiltzeko urrats irmoak egin eta politikak sustatzea.

Ukrainako gerrak are gehiago azalarazi du Euskal Herriak duen energia menpekotasuna. Hemen kontsumitzen dugun energia munduko beste leku batzuetatik dator, merkatuen menpe dago eta horren ondorio da etengabe ari dela garestitzen energiaren prezioa eta ondorio horiek guztiak herritarrek jasango dituzte beste behin.

Horregatik guztiagatik, trantsizio energetikoaren erronka premiazkoa eta urgentziazkoa da. Gauza asko eta oso azkar aldatu behar ditugu, baina gure premisa argia da arlo honetan ere: trantsizioak iraunkorra, berriztagarria, justua eta inklusiboa izan behar du, inor baztertu edo atzean utziko ez duena eta herrikideen arteko berdintasuna bermatzea izango duena bokazio gisa.

Energiaren erronkari modu kolektiboan erantzutea funtsezkoa da. Zentzu horretan, Eusko Legebiltzarrak etorkizuneko Energia Trantsizio eta Klima Aldaketari buruzko legean interesa duten herritarren parte-hartzea bermatzea bezain garrantzitsua da Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala behingoz egitea. Izan ere, badira hamar urte baino gehiago Eusko Legebiltzarrak aho batez eskatu zuela indarrean dagoen Eoliken Lurralde Plan Sektoriala berritzea. Eta hori gutxi ez balitz, 2019ko Jasangarritasun Energetikoko legean ere Eusko Jaurlaritza 2 urtetan esandako Plan Sektoriala berritzera konprometitu zen. Trantsizio energetikoa euskal ekonomia deskarbonizatzekeo estrategia baten baitan egin behar da, eta hori, era adostuan, erregai fosilen abandonua planifikatuz hasten da.

Beste behin ere, egoera honetara ekarri gaituzten politiketan erabateko aldaketa eman beharra dago, agerikoa da etxerako lanak egin gabe iritsi direla hainbat instituzio, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia barne.

Orain arte poliki eta gaizki egin dena, energiaren deskarbonizazioa eta energia berriztagarri eta garbietara trantsizioa, azkar eta gaizki egiteko arriskua ikusten dugu. Hau honela gertatu ez dadin, EH Bilduk gutxieneko bermeak eskatzen ditu, aurrean daukagun erronkari garaiz eta dagokion neurrian erantzun ahal izateko.

Hau guztia dela eta Errezilgo Udalbatzak ondorengoa adierazten du:

1- Errezilgo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehenbailehen Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala onar dezala, ahalik eta parte hartze eta gardentasun gehienarekin, norbanako, eragile zein udalon ekarpenak jasota. Planifikatu, ordenatu eta kontrola ditzala energia enpresek garatu asmo dituzten proiektuak, eta berma dezala energia berriztagarrien azpiegituren eraikuntza herritarren beharrak lehenetsiz egingo dela eta ez energia enpresen interesen arabera. Eta planifikazio hori egin bitartean, behin-behineko mekanismoak erabil daitezela plangintzako puntu polemikoenak arautzeko, eskusio eremuak zehaztu eta babeste aldera.

2- Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu energiaren arloan dituen ardurak bere gain har ditzala. Bazter dezala behingoz orain arteko fosilen aldeko apustua, gas ustiategiarena kasu. Jar ditzala baliabideak energia trantsizioa herri ikuspegiz egin dadin bermatzeko. Energia berriztagarrien zabalkunde

lidergoa har dezala beharrezko diren egiturak sortu eta baliabide ekonomikoak jarritz. Eta plan integral bat osatu dezala herritarren partehartzearekin; energia kontsumoaren murrizketa lortzeko, bioaniztasuna zaintzeko, basogintzaren kudeaketa jasangarri baterako, elikadura estrategia lantzeko, industriaren birmoldatzea abian jartzeko...

3- Trantsizio energetikoak iraunkorra, berriztagarria, justua eta inklusiboa izan behar du. Inor baztertu edo atzean utziko ez duena eta herrikideen arteko berdintasuna bermatzea izango duena bokazio gisa.

4- Egungo energia kontsumoa ahal bezainbeste murriztuta ere, izango ditugun energia beharrei erantzuteko, energia berriztagarrien sorkuntzarako instalazio txiki, ertain, nahiz handiak beharko ditugu, ezinbestean. Instalazio orok erregai fosilak ordezkatzeko bokazioa eta ingurumenarekiko errespetua bermatu behar ditu.

5- Errezilgo Udalak energia kontsumoa murrizteko nahiz energia modu berriztagarrian sortzeko herrian egon daitezkeen aukerak aztertze konpromisoa adierazi nahi du. Eta bere prestutasuna adierazten du herritarren partaidetzarako espazioak sortzeko, non herritarrei informazioa eman, eztabaidatzeko aukera eskaini eta adostasunetara heltzeko bitartekoak ezarriko diren. 2050. urtea baino lehen klima neutraltasuna lortzeko eta klima aldaketaren eraginei erresilienteagoa izango den herri bat eraikitze, ahalik eta modu justu eta solidarioenean, herri gisa egin beharreko urratsak identifikatzeko.